

GIL 32 Aritzatxuko olistolitoa



Aritzatxuko olistolitoaren azaleratzea.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 25' 34,26"

Long.: 2° 43' 46,86"

- **UTM koordenatuak:**

X: 521.880,08 m

Y: 4.808.178,93 m



Nola iritsi

Bermeoren Bakioranzko irteeran (BI3101). Bermeoko hilerrietik ezkerretara, Aritzatxuko hondartzara jaisten den bidea hartuta.



Aritzatzuko olistolitoa.

GILaren deskribapen laburra

Aritzatzuko harea-hondartza txikia tamaina handiko arroka batzuek babesten dute olatuetatik. Arroka horiek olistolitoak dira, hau da, arro sedimentario baten barnean grabitatez irristatzen diren arroka-zatiak, une hartan arroan metatzen ari diren materialen artean material arrotz gisa sartuta gelditzen direnak. Tamaina askotarikoak izan daitezke: zentimetrikoetatik kilometrikoetara (ikus GIL 17). Aritzatzuko adibidean, olistolito horiek tamaina metrikokoak dira.

Albiarrean, Behe Kretazeoaren amaieran, plataforma karbonatua atal goratuta eta ildotan zatituta zegoen, eta haien artean ezponda edo malkar oso ezegonkorak zeuden. Gerta zitekeen plataforma goratuen parte batzuk zartatzea failek eragindako seismoen eraginez, eta, ondorioz, zati horiek ezpondan behera amilduta, higakin-fluxuak sortzen ziren. Dentsitate handiko fluxu horietan, kontsolidatu gabeko materiala eta klasto gisa kontsolidatutako materiala, olistolitoak, egongo ziren.

Bigarren mailako interesa

Aritzatzun era askotako egitura sedimentarioak ikus daitezke: *rippleak*, marea-kanal txikiak, *swash marks*...

Behatzeko punturik onena

In situ.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 98, GIL 134, GIL 22, GIL 95, GIL 105.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 17.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				●
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografía específica

- EEE.